

Futbito txapelketaren bukaera

Udalaren «oztopoak» salatu dituzte ▶ 6



Eguberriak pasatuta, hasi dira Inauteriak prestatzen

GOIZ ▶ Aurten jaiak oso goiz direnez, karroza eta konpartsak prestatzen hasi dira jada

ENTSEGUAK ▶ Astialdi taldeak eta danborradak hasi dira bere emanaldiak entseatzeko ▶ 4-5



Karroza bat prestatzen. N.LATABURU

JESUS GARMENDIA ▶ ZALDIZKOA

«Hipika, berez den baino garestiagoa dela uste du jendeak»

Espainiako txapelduna izan da ▶ 2-3

HITZA



TOLOSA ▶

Berdinketa EHUrekin eta lidergoan jarraitzen du Tolosak

Golik ez zuten lortu bi futbol taldeek atzo Berazubín; EHU bigarrena zen ▶ 7

Atzoko partidua. O.ESKITXABEL

TOLOSA ▶

Egun lasaia izan da azokan; zizak eta usoak ikusi dira

Barazkiak eta fruta saldu ziren gehien atzo Zerkausian eta Berdura plazan ▶ 7

TOLOSA ▶

Arraun erakustaldia izango da gaur Orian

Eskualdeko hamar batel ariko dira ▶ 7



LANDARRI, S.L

Hilerrien ustiapena eta kudeaketa

- | | |
|---------------------------|--------------------------|
| Kanposantuko Lanak | - Eraikuntza ezberdinak |
| - Ehorzketak | - Hilobien apainketa |
| - Lurpetik ateratzea | - Hilariak |
| - Gerakinen lekualdetzea | - Panteoiak |
| - Gerakinen errausketa | - Hilobiak |
| - Errausketa zerbitzua | - Estelak |
| - Hilerriaren proiektuak | - Fotozeramikak |
| - Hilerriaren eraldaketak | - Estanpaziozko teknikak |

Santa klara, 1 behe - TOLOSA

Tel./faxa: 943 67 01 14 • Zerbitzu iraunkorra: 610 552 552

Bidasoa, 9 behe -ORERETA- ERRENTERIA

Tel.: 943 34 04 67 • Faxa: 943 51 31 41

www.landarri.com • landarri.l@terra.es

UZTURRETIK ▶
KRISTINA URRUTIADatorren
urterarte
Baltasar!

Urduritasunez eta emozioz betetako bigarren gaua pasa zuten Euskal Herriko ia haur guztiek. Eta haiei begira jarrita, nire gaztarokoak etorri zaizkit burura. Gogoan dut oraindik ere, nire erregea Baltasar zela esaten nuenekoa, errege beltza, Garzonekin batere antzik ez duen hori alegia. Ez daukat argi noiz eta zergatik aukeratu nuen Baltasar, baina oso ongi oroitzen naiz ze urduri jartzen nintzen ohol-tza gainera igo eta nire erregeari, muxu bat eman behar nioenean. Izan ere, hain zen beltza, gaua bezain iluna ikusten nuen harengana hurbiltzean, eta beldurtu egiten nintzen.

Asteazkenean ere, aurpegikera berdintsuak ikusi nituen nire herriko umeengan. Batzuk pozez txoratzten eta beste batzuk berriz, «ez dadiela nigana hurbildu» esanez. Baina ilusioa berbera denen begietan. Gau magiko eta koloretsu hark opariak ekarriko baitzizkien, abenduaren 24ean gertatu zen bezalaxe!

Ez dute lan makala gure Olentzerok eta Orienteko Erregeek haur guztien amets eta desioak betetzen, baina opariak jasotzerakoan erakusten duten poza ikusteak ere asko balio du.

Eta oraingoan ere konturatzera pasa da urtarrilaren 5a, urduritasuna eta lorik ezin egindako gaua. Joan dira errege magoak, Baltasar ere bai. Eta haiekin aurtengo Gabonak.

Orain beste etapa bati egin beharko diogu aurre, bijilari eta baraualdiei. Inauteriak amaitzearekin batera hasiko da debekualdia eta haragirik probatu ere egin gabe pasa beharko ditugu handik aurrerako ostiralak. Baina bost axola haurrei baraualdi kontua. Lasai asko eginen lukete horiek Aste Santura bitarteko denbora, haragirik ere probatu gabe. Nire kezka ordea, beste bat da: eginen al dugu guk horrelako sakrifizioak? Errazago konformatuko ginateteke bai, oparirik izan gabe.



Errege Magoen etorrera eskualdeko herrietara

ASTEKO IRUDIA ▶ Urtero errepikatzen den ohitura izan arren, txikien ilusioa eta poza urtero berritzen da. Errege Magoez ari gara. Asteazken iluntze-gauean iritsi ziren bere

opariekin Tolosaldeko eta Leitzaldeko herrietara eta haurrak eta helduak bere zain zeuden. Kabalgata eta ongietorri ugari egin zieten. Argazkian, Tolosakoa. OLAIJA ESKITXABEL

JESUS GARMENDIA ▶ ZALDIZKOA

«Hipika markesek egiten
dutenaren etiketa jarri dio
jendeak eta ez da horrela»

Oztopo-lasterketetan sobera ezaguna da Jesus Garmendia; zortzi urterekin hasi zen kirol horretan; iaz, beste lehiaketa askorekin batera, Espainiako Txapelketa irabazi zuen

OLAIJA ESKITXABEL

Etxean kontatu diotenez oso txikia zela, astoa ikusi bezain pronto gainera igotzen saiatzen zen. Zaletasuna mutil koskorra zenetik dator, beraz, Jesus Garmendia orenda indarrari. Zortzi urte zituela astoa zaldiarengatik aldatu eta oztopo-lasterketetan parte hartzen hasi zen. Iaz, Espainiako txapelketa geratu zen; sari garrantzitsu ugari lortu ditu eta sailkapenean lehenengo postuetan aurkitzen da.

Denboran atzera eginez. Nolan hasi zinen zaldiarekin jauziak egiten?

Zortzi urterekin Donostiara joan nintzen osaba-izeben etxera oporrak pasatzera;

hauek zaldi batzuk zituzten eta hortik mundu horretan sartzen hasi nintzen. Askok gustatzen zitzaizkidan ikusita Donostiara bizitzera joatea proposatu eta hara joan nintzen. Futbolearen jokatzeko nuen; eta, egia esan, zaldia baino gehiago gustatzen zitzaidan. Hala ere, oztopo lasterketetako zaldizko gisa, Donostiako selekzioan sartu nintzen eta Espainiako Txapelketa, infantil mailan bigarren geratu ginen taldekoak. Hortik aurrera argi izan nuen zaldia gainean jauziak egin nahi nituela eta buru-belarri hortan sartu nintzen, futbola alde batetara utziz.

Futbolarekiko interesa baduzu oraindik?

Realeko bazkide naiz orain

dela urte asko eta futbola gertutik jarraitzen dut.

Egungo egoerarekin ez zara oso gustura egongo orduan. Elite mailako kirola ondo ezagutzen dut eta zentzu horretan ulertzen dut egungo egoera.

Kontaiguzuz, zaldizko bezala izan duzun ibilbidea.

Hogei urte arte Donostian egon nintzen; ondoren, Aragoiko Yeguada de la Closeta zaldieriara joan nintzen eta bertan egon nintzen bost urtez. Nazional mailan, lehenengo bost hobereenen artean kokatzea lortu nuen. Europara jauzia egitea erabaki nuen ondoren. Herberheretara joateko nintzen arren, azkenean, lagun baten gomendioari esker, Frantziara joan zen; bertan lau urte egin

zuten. Lehenengo urtea oso gogorra izan zen (ez nuen hizkuntza ezagutzen...), baina gaitzako urteak oso onak izan ziren.

Eta Frantziatik Hondarribira etorri zinen ondoren.

Bai; Frantziako zaldierian lau urte eman eta gero, etxera etortzea erabaki nuen. Egun, Hondarribian bizi naiz; oztopo-lasterketetan parte hartzen dut eta era berean, Ainara Recondo, egun nagoen zaldieriko nagusiaren alaba, entrenatzen dut. Astebururo konpetitzen dugu, apirilean hasi eta urria bitarte.

Hipika, kirol gisa garestia dela esan ohi da. Zer duzu esateko horren inguruan?

Hipika beste kirolak baino garestiagoa da, baina jendeak dena baino garestiagotzat dauka. Nik, gainera, hori ozen esan dezaket; ni, familia xume batekoa naiz eta ezerezetik posturik hoberenetan egotea lortu dut. Kirol hau markesek egiten dutenaren etiketa jarri dio jendeak eta ez da horrela.

Zaldizko zein entrenatzaile gisa urte borobila izan zen iazkoa.

Iaz Espainiako Txapelketa eta Madrildu Copa del Presidente delakoa irabazi nituen. Irakasle gisa ere entrenatzen dudana ikasleak lorpen garrantzitsuak izan dituela esan dezaket.

IRITZIA ▶ KIKE AMONARRIZ (HIKUNTZALARIA)

Hizkuntzaren kalitatea Tolosaldean

Euskararentzat alor, eskualde eta hiztun berriak irabaztea izan da, orain arte, hizkuntza normalizazioaren alde lanean jardun dugunon kezka nagusia. Gure kasuaren antzera egoera minoritarioan dagoen hizkuntza baten hedapenak, ordea, hizkuntzaren kalitatearen galera nolabaitekoa dakar ezinbestean. Hori dela eta, lehengo kezka zaharrari beste bat gehitu zaio, azken urte hauetan: gure artean hedatzen ari garen euskararen kalitateari dagokiona, alegia.

Gerraurreko belaunaldian dena den, baten hizkuntza kalitateaz kezkatzen zenik. Horien artean tolosar bat: Justo Mari Mokoroa *Ibar*. 1936. urtean argitaratu zuen *Genio y Lengua* liburuan, senaren galeraz kezu zen: «(...)decae el euskera, primer exponente del genio vasco. Pierde terreno y se habla menos. Se empobrece».

Ondoren frankismoa etorri zen eta atzera egin zuen euskarak. Tolosaldean ez horrenbeste, baina Tolosa hondoa jo zuen, haur eta gazteen arteko kaleko erabileratik ia erabat desagertzeraino.

Eta Pernandoren egia badirudi ere, erabiltzen den euskara kalitate onekoa

izan dadin ezinbesteko baldintza da euskara jakin eta erabiltzea.

Azken bi hamarkadetan, aurrerapauso nabarmenak eman ditugu aspektu honetan, gure eskualdean. Ikusi besterik ez dago zer nolako iraultza gertatu den haur eta gazteen kaleko erabilpenean. Tolosan, esate baterako, 1985ean zaharrak ziren euskaraz gehien egiten zutenak eta gaur egun beraiek dira gutxiengatik egiten dutenak.

Hizkuntza normalizazio prozesuan hutsune handiak eta larriak ditugu, baina Tolosaldean lortu dugu haur eta gazte guztiak euskara maila txukuna eta beraien arteko harreman hizkuntza nagusia euskara izatea. Erronka berriak beraz, maila bat gora igo behar ditugu. Besteak beste, hauek aipa ditzakegu:

- Erabilpenaren hobekuntza dinamikari eutsi eta berau zabaldu, oraindik ere, proportzio hauetatik urrun dauden ikastetxe, talde eta eskolorduz kanpoko jardueretara.

- Erabilera esparruak indartu, gizarte sektore guztietan (horretarako, eragilearen eta administrazioaren implikazioa eta elkar lana ezinbestekoak izango dira).

- Euskararen irakaskuntza egokitasunaren ikuspuntutik bideratu, hizkuntzaren komunikazio ahalmena eta gozagarritasuna bultzatuz.

- Euskarazko kultur sorkuntza eta kontsumoa sustatu.

Kalitatezko euskarak, azken batean, hiru maila ditu. Aldiberean egoki (helburu komunikatiboak betetzen ditue-), jator (senari darraiona) eta behar

IRAUTZA ERABILPENEAN

Tolosan, 1985ean zaharrak ziren euskaraz gehien egiten zutenak eta gaur egun beraiek dira gutxiengatik egiten dutenak

denean, zuzena (araua betetzen duena) dena da euskara ona, baina, euskararen normalizazioa erabatekoa ez den bitartean, elkarren arteko lehian egon litezke hiru ezaugarriok. Horrelakoetan, egokitasunari eman behar genioke beti lehentasuna.

Tolosak beti izan du euskara onaren ospea. Eta Tolosa bertakoa asko pobretu bada ere, eskualdeko herrietan, euskara bizi, adierazkor eta ahalmen komunikatzaile handikoa dugu oraindik. Euskararen bizi indarraren gune indartsuetako bat eskualdean dugu eta honek erantzukizun handia ezartzen digu Euskal Herri osoko hizkuntz normalizazio prozesuari begira; erreferenteak izan behar dugulako, hala normalizazio prozesuari dagokionez, nola hizkuntzari berari dagokionez.

DATUAK ▶

	Haurrak (0-14)	Gazteak (15-24)	Helduak (25-60)	Zaharrak (>61)	Guztira
1985	37	16	30	38	29
2004	66	62	36	30	43

Iturria: Tolosako udala. Euskara Zerbitzua.



PERTSONALKI ▶

▶ Orendaingo Bidearte baserriko semea ▶ 1965eko uztailaren 5ean jaioa ▶ Hondarrribian bizi da ▶ Zortzi urterekin hasi zen zaldiaren munduan ▶ 2004ean Espainiako Txapelketa irabazi zuen

Montatu duzun zaldi bat. *Catch my dryt* izeneko behor irlandesa da izan dudana zaldirik hoberena. Oso erregularra zen; oso genetikoa onekoa. **Oztopo-lasterketan aritzeko arrazarik hoberena?** *Silla frantzes*a eta *Holsteiner* arrazako zaldiak.

EZAUGARRIAK

«Zaldizkoak burua hotz mantentzea garrantzitsua da, lehiaketetan presio handia egoten baita»



Bi zaldirekin soilik aritu zinen iazko denboraldian.

Ez nuen espero hain ondo ibiltzea. Iazko denboraldian, bi zaldirekin aritu nintzen eta ez nuen espero zaldiek egin duten lana egitea. Denboraldi guztian forma fisikoa goren puntuan mantendu dute eta hori oso zaila izaten da.

Oztopo-lasterketarako zaldi baten ezaugarriak. Garrantzitsua da zaldiak potentzia eta elastikotasuna izatea; azkarra eta atletikoa ere izan behar du. Hala ere, garrantzitsua burua da.

Eta zaldizko on batenak? Indarra, kontzentrazioa, oreka

eta eskuetan sentsibilizazio ona izatea. Burua hotz mantentzea ere garrantzitsua da, lehiaketetan presio handia egoten baita.

39 urte dituzu eta oraindik punta-puntan. Noiz arte jarraitzeko asmoa duzu?

Zortez, zaldizkoen bizitza deportibo luzea izaten da; zaldizko hoberenek berrogei urteren bueltan ibiltzen dira.

Hasitako urte berriari zer eskatuko zenioke?

Lortu dudana mantentzearekin konformatzen naiz; lorpenak eskuratzea zaila izaten da, baina are zailagoa punta-puntan mantentzea.

INAUTERIAK ▶

Eguberriei lekukoa hartuz

Otsailaren 3an hasiko dira aurtengo Inauteriak Tolosan; hori dela eta, karroza eta konpartsa gehienak hasi dira dagoeneko lanean, ordurako dena prest izan ahal izateko



Lari handia dago oraindik egiteko hilabete honetan. Aurreko urteko karrozak betetzen dute oraindik Ferialdekoa. **NEELIA LATAURU**

NEELIA LATAURU
Meltxor, Gaspar eta Baltasar Erreegek bere Orienterako bueltako bidaiari ekin berri dioten honetan. Inauterietan, ate joka ditugu dagoeneko Tolosan. Gabon kantak, turroiak, opariak... Gabon egunerako gehiegizko orobar, alde batera utzi eta datorrenari ongi etorria egiteko unea da orain; hau da, artzaindare jantziak gorde eta tsilaba ateratzeko unea. Hilabete eskas geratzen zaigu gure mozoorrok prest izateko eta tsilaba eromenezko sei egun hauek abaztezinak izateko helburuz. lanean hasi direnik.

Dantza taldeek eta karrozak eman ohi diote kolorea Inauterietan eta herriko konpartsa eta karrozak hasi dira jadanik euren irudimena lantzen; honek, ordea, lan nekeza dakar. Jendeak herriko txoko ezberdinetan hartzen ditu euren karrozak margotzeko edota dantzak entzailatzeko. Tolosaldeko Ferialdekoa da adibidearik argiena. izan ere, lehenengo urteko karrozak edota erakitzear daudenenak betetzen dute lekua egun hauetan. Inauterietan askok euren opor egunak aprobetxatzeko dituzte marjoak eta zerrak hartu eta karroza hauek erakitzeko; beste askok, aldez, lanak kentzen ez dituzten arteak

erabiltzen dituzte. Bertan topa ditzake lehen aldiz konpartsa antolatzen duena, eta baita Jodanik beterrano dena ere. Hala ere, denek pozik egiten dute lan gogor, egun borobillak igaro ahal izateko. Tolosan aspaldi hasi dira lehenengo urteko karrozak prestatzen. Peteria taldeko Manuel Valfiok azaltzen duen bezala, saurten inoiz baino lehenago datoz eta prestatuta egon behar da horretarako. Hori dela eta abenduaren 15ean jadanik Ferialdeko atekak ireki ziren, bertan lan egiteko. Dena den, bi hilabete behar izaten dituzte dena prest izateko. «Gure bosgarren urtea da karrozarekin eta aurtengoan lehenengo urtekoa moldatuko dugun», adierazi du Valfiok. Gehienak asteburuetan bilbitzen badira ere, aste egunetan ere jendeak bere denbora honetan erabiltzen du. Juan Miguel Aranzabal inauterietan ere bere egunak aprobetxatzen ditu aurturako dantzak izan ditu, guri hau urteko, besteala ez bakelumen non lan egitu, adierazi du Juan Miguel Aranzabalek.

Eta garaiek eskatzen duen legez, denek dute buruan ideien bat edota mozoorren bat, zein baino zein berriztaila. Aranzabalek, azaldu digutenez, dienez artean pentasutako izan da. Gehienetan, egun batzuk lehenago elkartzan dira eta bakoitzak bere ideiak pro-

MOZOORROAK

Egunerokotasunarekin haren estua duten eta betikoak diren mozoorrok dira ideia nagusiak

DANTZAK

Talde batzuk jadanik hasi dira entseguekin; besteak asteburu honetan hasiko dira gorpuzta astintzen

PRESTAKETAK

Lan nekeza burutzen dute konpartsa prestatzen eta karrozak erakitzeko aritzen diren guztiak

nak aritzen dira, baina denek laguntzen dute, azaldu du inauterietan honak.

Eguraldiaren beldur

Aurtengoan gainera denbora tarte gutxiago geratzen da antolatzaileentzat, hilabete baino gutxiago geratzen baita Otegun Gizeko txupinaozoa entzailatzeko. «Aurreko urteetan Eguberrietan otegun gehiago genituenez, beranduago hasten ginen, baina aurtengo honetan erabiltzen du. Juan Miguel Aranzabal inauterietan ere bere egunak aprobetxatzen ditu aurturako dantzak izan ditu, guri hau urteko, besteala ez bakelumen non lan egitu, adierazi du Juan Miguel Aranzabalek.

Eta garaiek eskatzen duen legez, denek dute buruan ideien bat edota mozoorren bat, zein baino zein berriztaila. Aranzabalek, azaldu digutenez, dienez artean pentasutako izan da. Gehienetan, egun batzuk lehenago elkartzan dira eta bakoitzak bere ideiak pro-



Dantza taldeak ere gogor hasi dira bere lehenengo entseguekin. **A. L.**



Egurrak eta zerrak hartu eta denek lanean. **A. LATAURU**



Jendea gogor ari da lanean karrozak erakitzeko eta moldatzeko. **A. L.**

duz aintzat. Urteak joan ahalak, gero eta zailago da originaltasun lortzea, baina gogor aritzen dira denak hau lortu ahal izateko. Alde batetik, mozoorarkin bat doan musika hartzen dute, aliala eta denentzat dantzagarrira izaten dena. Ondoren, dantza bera asmatzen dute, oso zaila ez daitekela izan kontuan hartuz. Eta hasi ez direnak ere, ideiak eta dantzak prest dituzte gaitzetan erakusteko. Gehienak asteburu honetan hasiko dira gorpuzta astintzen eta gaitzetan dantzaren pauso guztiak erakusten.

INAUTERIETARAKO OHARRAK ▶

Lekiatzen eta hainbat danborradan parte hartzeko epaie ireki dira jadanik.

HAUR DANBORRADA

Kosakak. Haur Danborradan kosaka bezala parte hartzeko entseguek alzo hasi ziren. **Entseguek.** Harrengo bi larunbaitan Beotibar pilotalekuan eta hilaren 30ean, igandea, entsegu nagusia Trianguloan. Entsegu guztiak 15:30ean izango dira. **Izen-ematea.** Parte hartu nahi duten neskek entseguraren aurretik eman dezakete izena bertan.

BERAZUBIKO DANBORRADA

Entsegu. Gaur 12:00etan zuzen-gilaan.

KARROZA ETA KONPARTSEN LEHIAKETA

Oinarri berriak. Aurtur Jai Batzordeak oinarri berriak jarri ditu lehiaketarako. Huru modalitate izango dira: karrozak, konpartsa plattformadunak eta konpartsa.

Izen-ematea. Urtarrilaren 21a arte egin daieke udalbatzen. Lehiaketako zain aletan parte hartu nahi den, karroza edo konpartsa eraburua, zein egunetako aterako den, partide kopurua eta arduradunaren datuak eman behar dira.

Epaiahalaia. Udalerria eta parte-hartzaileen ordezkariak izango dira epaileak. **Izen-ematea.** Urtarrilaren 21a arte egin daieke udalbatzen. Lehiaketako zain aletan parte hartu nahi den, karroza edo konpartsa eraburua, zein egunetako aterako den, partide kopurua eta arduradunaren datuak eman behar dira.

Entseguak. Harrengo bi larunbaitan Beotibar pilotalekuan eta hilaren 30ean, igandea, entsegu nagusia Trianguloan. Entsegu guztiak 15:30ean izango dira. **Izen-ematea.** Parte hartu nahi duten neskek entseguraren aurretik eman dezakete izena bertan.

TOLOSAKO UDALA

PROGARRA

1) **Lehenengo Udako Udaberriaren** (15/01/2025) kontzertuko errota da Inauterietarako (inguruko herrietako, eguneko, 10:00etan eta 18:00etan).

BEHARBERRIAK:

- a) 10 urteko neska, neska.
- b) 10 urteko gizona, gizona.
- c) 10 urteko gizona, gizona, baina bakoitzak bere bakoitzak 10 urtekoak izan behar dira.
- d) 10 urteko gizona, gizona, baina bakoitzak bere bakoitzak 10 urtekoak izan behar dira.

BALORATZEA:

- a) 10 urteko gizona, gizona.
- b) 10 urteko gizona, gizona.
- c) 10 urteko gizona, gizona.
- d) 10 urteko gizona, gizona.

JADA ZABAIK

2021/01/01

Irargari laburrak ▶

Administrazio laguntzaileak. Laster sarrerak udal hauek: Hernani, Usurbil, Irujo, Beasain, Aitz, Bergara, Zornio, Mutilua, Zuzuri, Mendara, Anaita. Informazioa doan 943 65 01 93. Sukaldari laguntzaileak. Plaza	libreak eskolatzen, egotzitzen, Esko Jaurfarietan. 943 65 01 93 telefonora doan. Galeriak. Laster sarrerak udalaren eta Esko Jaurfarietan. Informazioa doan 943 65 01 93. Poak, elektrizitate, burdinak,	sokaldariak, igaribetarak. Plaza libreak erakunde publikoetan. 943 65 01 93. Haur Heziketa. Plaza libreak heziketarako publikoetan, haur eskolatan. Informazioa doan 943 65 01 93. Laborategi ingurumena, Osakidetzak, arztegi. Plaza libreak	Ostalariak. Sukaldari laguntzaileak, sukaldariak, zerbitzariak. Plaza libreak: eskolak, egutziak, Esko Jaurfarietan. 943 65 01 93. Bazterrak. Udal, Alfundia, Esko Jaurfarietan, administrazio publikoak. Informazioa doan. 943 65 01 93.	udal, Alfundia eta Esko Jaurfarietan. Informazioa doan. 943 65 01 93. Bazterrak. Udal, Alfundia, Esko Jaurfarietan, administrazio publikoak. Informazioa doan. 943 65 01 93.
---	---	---	---	---

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Berastegi-Elduain. Medikua:
68 33 61

Ibarraldea. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ Iurramendi egoitza: 67 03 25

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

▶ Leitzaeran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Morant, R. Zabalzarreta 1

(Tolosa). 943 67 38 49.

Gimeno. Elbarren 52 (Leitza).

112.

Bihar. Santamaria I. Nafarroa

etorbidea 2 (Tolosa).

943 65 46 10.

Larraia, M.I. Elbarren 95

(Leitza). 112.

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_public@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoetaldea. 687 41 00 22

anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzaldea. 687 41 01 18.

leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria eta tabernaria.

Sukaldaria eta tabernaria behar

da. Deitu 15:00etatik aurrera.

943 68 21 54.

Sukaldaria. Tabernarako

sukaldaria behar da.

asteburuetan lan egiteko.

943 69 19 33.

ALKIZA ▶

Ipuin kontaketa
saioa bihar
Kultur Etxean

Hil honetan eta Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak antolatuta ipuin kontaketa burutuko da hiru eskualdeko hiru herrietan. *Xalto ta Brinko Zabarre pirataren itsasontzian* izeneko ipuina kontatuko da. Alkizan izango da lehenengo aukera, bihar arratsaldeko 17:30ean. Herriko Kultur Etxean izango da.

LEITZA ▶

Barriolak ez du
jokatuko eskuan
mina duelako

Abel Barriolak ez du jokatuko gaur Eibarreko partida, aurtengo Binakako Txapelketan bere debuta izango zena. Pilotari leitzarrek munda du eskubiko eskua etasendagileak ez jokatzeke aholkatu dio. Horrela, Elkorok hartuko du bere lekua eta Titin III. arekin batera Olaizola I.a eta Zearra izango dituzte aurkari gaur.

VILLABONA ▶

Mendi irteera
Aizkardiren
eskutik

Euskal Herriko hiriburuak uztartuz egitasmoaren baitan Aizkardi mendizale elkarrekin ibilaldia antolatu du datorren iganderako, hilaren 16a. Zubilana-Orduña arteko irteera egingo dute. Zeharkaldi honetan izena emateko, 943 69 44 58 telefonora deitu behar da edo Aizkardiren aretora azaldu osteguna baino lehen.

IRURA ▶

Gimnastika
ikastaroa
etzi hasiko da

Mantenu gimnastikako ikastaroa astearte honetan hasiko da, 18:00etatik 19:00etara. Klaseak astearte eta ostegunetan izango dira, Ikastolako areto nagusian. Bestalde, xake ikastaroa larunbatean hasiko da, 11:00etatik 12:30era, gazte lokalean. Tolosako Xake Elkarteak Iñigo Mujika izango da begiralea.

IBARRA ▶ KIROLA

IMANOL GARCIA

Ibarrako Gazte Asanbladak antolatuta, atzo eguerdian hasi zen AHTren aurkako IV. 24 orduko Futbito Txapelketa. Hamahiru taldek eman dute izena eta gaur eguerdian hasiko den partidaren erabakiko da finala. Bitartean, atzoko egun guztia eta ia gau guztia emango dute areto futboleko jokatzen Belabietako kiroldegian. Partida interesgarrienak gaur goizean izango dira. Goizeko 8:00etan eta 9:00etan jokatuko dira bi finalerdiak. Ondoren, 10:30ean, hirugarren eta laugarren postua erabakitzekeo partida eta 12:00etan finala jokatuko da.

Lehenengo partida hasi aurretik, antolatzaileek prentsaurrekoan Ibarrako Udalak txapelketaren aurrean izandako jarrera salatu zuten. Aurtengoa laugarren aldia da txapelketa hau antolatzen dutela eta «beste guztiak baino gehiago kostatu zaigu aurrera ateratzea, Ibarrako Udalak, beste behin ere, gure ibilbidean oztopoak besterik ez dituelako jartzen».

Txapelketa egiteko baimena eman aurretik, 206 euroko bermea ordaindu dute antolatzaileek. «Bermea jartzea gauza bat da eta beste bat 206 euro ordaintzea, bermea itzultzeko baldintzak sinestezinak baitira», azaldu zuten Gazte Asanbladatik. Eta horien artean, baldintza hauek nabarmendu zituzten: «Karteletan Udala laguntzaile moduan agertzea 'en lugar sobresaliente'. Gure usatez inongo laguntzarik eman ez digunean eta jendeari bertan pasatu beharko dituen orduak, askoren kasuan 24 ordu, aha-

24 orduko IV. Futbito
Txapelketa gaur
eguerdian erabakiko da

Antolatzaile lanetan ari diren Gazte Asanbladakoek prentsaurrekoan «Udalak jarritako oztopoak» salatu dituzte



Lehenengo partida hasi aurretik prentsaurrekoa egin dute antolatzaileek kantxan. HITZA

lik eta erosoen pasaztea eragotzi, kiroldegian bertan inongo barra edo posturik jartzea debekatuz».

Bestalde, bermearren arrazoia «gure txapelketa Udalaren ustez 'con animo de lucro' antolatuta dagoela izan da». Baina Gazte Asanbladakoek ez zaizkie kontuak ateratzen:

«Gehenez 960 euro jasotzen ditugu parte-hartzaileengandik. Ikusita, sarietan, trofeoaz aparte, 900 euro eta arkume bat banatzen direla, ez zaigu iruditzen diru asko irabaziko dugunik». Hamahiru taldek izena eman dutenez, «dirua gaitzen aterako gara».

Azkenik, txapelketa bertan

behera uztekoan egon direla azaldu dute Gazte Asanbladakoek. «oztopo hauetaz eta oztopoak jartzen dituztenen jarreraz nazkatuta eta nekatuta gaudelako. Baina iruditzen zaigu txapelketan izena eman eta ondorioz jokatu nahi duzuen guztiok, ez duzuela hau merezi».

Promozioa eta
eraikuntzak

Bizkai kalea, 2 - behea
20400 TOLOSA
Faxa: 943 69 71 98
Tel.: 943 67 21 72 - Mug.: 608 77 28 01

JATETXE BATEK

neska bat behar du
astelehenetik
ostiralera eguerdian
Tel.: 943 11 98 28

ESKERTZA ▶

JOSE GONZALO GUERRERO MANTEROLA
Jaun hil berraren senideen partetik, eskerrak sa-
min agurra bidali zenuten eta hileta elizkizuneta-
ra etorri zineten guztiok.

ALEGIA, 2005eko urtarrilaren 9a

ZOZKETA ▶

3.000 euroko saria, 62.484 zerbakiarentzat

Alde Zaharreko dendarien 3.000 euroko zozketaren zerbaki saritua 62.484 zerbaki izan da. Sarituak Erretengibelego bulegora jo beharko du (Plaza Zaharra, 10) hilaren 24a baino lehenago. Agertu ezean, ordezkotzerbakiak 76.281, 49.330, 74.749 eta 104.031 dira.

BATELAK ▶

Hamar talde gaurko batel erakustaldian

Pasa den abenduaren 26an zen egitekoa arraun erakustaldia, baina Oria ibaia zuen ur emaria zela-eta atzeratu egin zuten. Gaur, 12:00etan izango da. Batelaren erakustaldi saioak Nafar zubia eta Zubi Berriaren artean egingo dira eta hamar taldek hartuko dute parte; guztira, 50 arraunlari, beraz; eta guztiak eskualdekoak.

KROSA ▶

Ero Etxeko krosa antolatzeko bilera, asteartean

Ero Etxe elkarteak antolatzen duen haurrentzako krosa urtarrilaren 23an egingo da Tolosako kaleetan zehar: XVIII. edizioa beteko da aurten. Krosa behar bezala prestatzeko, asteartean, urtarrilaren 11n, bilera egingo da ikastetxeetako kirol arduradunarekin. Bilera, elkartean bertan izango da 19:30ean.

FUTBOLA ▶

Berdinketarekin, lider jarraitzen du Tolosak

Sailkapenean bigarren postuan zegoen EHU taldearen aurkako partida golik gabe amaitu zen atzo Berazubín

OLAIA ESKITXABEL

EHU taldearen aurka jokatu zuten atzo Tolosa futbol taldeko jokalariek Berazubín; sailkapenean lider zeuden tolosarrak eta bigarren postuan aurkitzen zen taldea izan zuen aurrez-aurre.

Husnako berdinketarekin amaitu zen partida eta, beraz, partida hasi aurretik bezalaxe, hau da, bi puntura egoten jarraitzen dute donostiarrek.

Lehenengo zatia nahiko parekatuta egon zen; zelaiaren erdian kokatu zen jokoa gol aukera handiegirik gabe. Tolosako Lasa jokalariek izan zuen gol aukera bat, baina justugatik kanpora joan zitzaion. «EHU taldekoek ez zuten ezer arriskatu, euren jokoa defendatzera mugatu zen», azaldu du Jose Mari San Sebastianek, Tolosako delegatuak.

Arbitroarekin haserre

Lidergoari eusten dioten arren, haserre agertu ziren tolosarrak arbitroaren lanarekin: «60. minutuan, EHU-ko defentsak eskuarekin ikutu zuen baloia eta arbitroak ez zuen penaltia pitatu; beranduago, Lasa atezainaren aurrean bakarrik aurkitzen zen eta atezainak falta egin dio eta hori ere ez du pitatu arbitroak», esan du delegatuak. Bigarren zatian, gol aukerak oso eskasak izan ziren.



Gol aukera oso gutxi izan ziren atzoko partidaren zehar. O. ESKITXABEL

TOLOSA ▶ 0

EHU ▶ 0

Tolosa. Apezetxea, Gorka, Ion, Aimar, Aierbe, Romero (74 m. Garagarza), Orue, Aranguren (60 m. Zuloaga), Prados (85 m, Christian) Lasa eta Elola.

EHU. Irazustabarrena, Martinez, Garcia, Ugartebea, Zubillaga, Borda, Zurutuza, Jaca (80m. Aranbarri), Marroquin (65 m. De Miguel), Gomes (89 m. Giglio) eta Txoperena.

Txartel horiak. Tolosa: Romero; EHU: Garcia eta Zurutuza.

Txartel gorria. EHU: Txoperena (75 m.).

Arbitroa. Etxarri I.a.

Marrzainak. Sansuan eta Lazkano.

Atzoko partidaren zehar, txartel hori bakarra jaso zuten futbolari tolosarrek; Romero atzelariak, hain zuzen ere. EHU taldeari, berriz, bi txartel hori eta txartel gorri bat ateratzen zion arbitroak, Etxarri I.ak. Txoperenari bi txartel hori erakutsi

zizkion bigarren zatia hasi eta ordu erdi ingurura.

Hurrengo partida Oñatin jokatu du Tolosak Aloña Mendialdearen aurka. Partida, datorren igandean, urtarrilaren 15ean, izango da. Ea emaitza ona ekartzen duten!

AZOKA ▶

Egun lasaia izan zen atzokoa azokan

Barazkiak eta fruta saldu ziren gehien; zizak eta usoak ere ikus zitezkeen

PABLO ALBERDI

Ez zen mugimendu handirik somatu atzoko azokan Tolosan; joan diren egunetako gehiegikeriak eraginda, erosleek ez zuten erosketa handiegirik egin. Barazkiak —azelgak, azenarioak, eskarolak, tomateak...— eta fruta saldu ziren gehien, nonbait barrukoak garbitzeko beharra dela eta. Ezustekoak ere izan ziren: Zizak eta usoak, besteak beste.

ATZOKO AZOKA ▶

Produktuak	merk.	gares.
Bertakoak		
Ziza horia	15,00	-
Usoa	5,00	-
Hurra	3,00	4,00
Gaztaina	2,00	3,00
Errezil sag.	2,00	5,00

Ekologikoak		
Kalabaza	1,60	3,04
Patata	1,50	-
Azenarioa	2,00	2,50
Arbi morea	4,00	-
Tipula	1,75	2,00
Aza	2,50	3,00

Berdura plazakoak		
Lilia	1,20	-
Krabelina (12)	4,80	-
Ziklamena	3,50	6,00
Izpilikua	4,00	6,00

hitza lagunena **txokoa**

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzue EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beharapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

Avalon
osagaiak
korreo,11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

ILUMINAZIOA

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 945 65 27 46

SHANTY KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko urtarrilaren 9a, igandea ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Kuartzesketa, Adura, Abitzur, Alege, Alkiza, Altoa, Amerleña, Aroeta, Balaran, Beasantza, Berastegi, Edoain, Herrialde, Ibarra, Itxaspegi, Itzi, Larramendi, Leizola, Lizartza, Oihenitz, Tolosa, Vilabona, Zuzuki **bestenik:** Leizaldeko Euskara Batzordea

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jaurjaritza
Kultura Saila

HITZA-KO BEZEROEN
ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpide egiteko...)

943
30 43 46

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

13

hotzena

10

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA
ARALAREN



Guardetxe: ez
Albi: ez

Pagomari: ez
Igaratza: ez

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alkiza. *Xalto ta Brinko Zabarre pirataren itsasontzian* ipuin kontaketa. Bihar 17:30ean Kultur Etxean.

Tolosa. Berazubiko danborradaren entsegua. 12:00etan zezen-plazan.
Tolosa. Bordini show mto ikuskizuna izango da Trianguloan. Bi saio: 13:00etan 19:00etan.

Tolosa. Ero Etxeko krosa prestatzeko ikastetxeetako kirol arduradunen bilera. Etzi, 19:30ean elkartean.

KIROLAK

Futbola

▶ Tolosa-Barakaldo (Jubenilen Euskal Liga. 16:30 Berazubi).

▶ Beti Gazte-Intxurre (Jubenilen 1. Maila. 16:30 Mastegi-Lesaka).

Futbol 7

▶ Bar Ignacio Hondarribia-Ibarrako Gazte Asanblada (1. Maila A. 11:30 Urnieta 1).

▶ Zardoya Otis-Lanbroa Dickens (1. Maila A. 10:30 Lasarte 1).

Esku pilota

(Euskadiko Kluben Txapelketa)

▶ Adurtza/Aurrera-Saiz (Pastriain) (10:30 Gasteiz. Sub 22).

Zesta punta

▶ Orrantia-Rezola/Goikoetxea-Garmendia (Beotibar 11:00)

▶ Trabazos-Mujika/Artetxe-Errondosoro (Beotibar, ondoren).

Herri kirolak

▶ Ioseba Egaña-Angel Eloseggi (motozerran erakustaldia, enbor ebakitzen eta korrikan). Inaxio Tapia-Jose Mari Soraluze (aharien erakusketa). (11:30 Andazarrate parkean. Asteasu).

Arrauna

▶ Batel erakustaldia Ori ibaian (12:00 Tolosa).

ZINEMA


Leitza. *Primavera, verano, otoño, invierno... primavera* filma. 19:30ean zineman.

Tolosa. *El maquinista* filma Leidorren. 17:00, 19:30, 22:30. Bihar, 19:30, 22:30.

Vilabona. *Unibertsolariak.* 17:00etan Gurean.



Tolosako San Frantzisko kalearen ikuspegi bat. J.SAIZAR



Tolosako ohiko ikuspegia, baina elurtuta. J.SAIZAR

Beterano baten artelanak

TOLOSA ▶ Manuel Arretxe tolosarrak bere olioak eta akuarelak ditu ikusgai Saikin tabernan hilaren amaiera arte; paisaiak dira gehienak



Olioak eta akuarela ederrak ikus daitezke Manuel Arretxeren erakusketan Saikin tabernan. JOXEMI SAIZAR

JOXEMI SAIZAR

Margolari beteranoa da, adinean aurrera dihotana, baina bere zaletasunari eusten dio tinko eta azkenaldiko lanak jarri ditu Tolosako Saikin tabernan. Manuel Arretxe tolosarra da bertan ikus daitezkeen margo ederen egilea. Olio eta akuarela teknikak erabiliz, 19 koadro dotore paratu ditu kafetegiko paretetan.

Paisaiak dira nagusi erakusketan honetan. Tolosa —San Frantzisko, Santa Maria parroikia, Nafarroako zubia, Zumardi txikia— eta Tolosaldea —Albiztur, Alegiako zubia, Aduna, Txindoki— agertzen dira gehienetan, baina eskualdez kanpoko lekuak ere badira: Intza, Pasaia eta Donostiako Aiete, Miramon, Kursaal eta Alderdi Eder, besteak beste.

Jada dozena erdi bat koadro saldu ditu Arretxek eta bere lanak ikusteko eta —gustatuz gero— erosteko aukera izango da hilaren bukaera bitarte.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Bea. Gaur urteak. Urteak pasa eta pasa eta inoiz baino sasotsuago. Aupa Erreal! Zure lagunak.

HITZA-KO
JERTSE BERRIA
ESKURA

Gertuen duzun
egoitzan
lor dezakezu

Zatoz zurearen bila!

TOLOSA • LEITZA